

Prentsa-oharra

Datuen ustiapena eta kudeaketa, aerosorgailuen mantentze-lan prediktiboa

- ▶▶ *IK4-TEKNIKERek, ATTEN2rekin batera, Los Monteros instalazio eolikoko aerosorgailuak monitorizatzen dituen proiektu bat garatu du, funtzionamenduari buruzko beharrezko informazioa biltzeko, eta, horrela, hutsegiteen arriskua murrizteko*
- ▶▶ *Horri begira, Fingerprint izeneko metodologia propioa erabili du zentroak, zeinari esker denbora errealean jakin daitekeen aerosorgailuaren egoera*

(Eibar, 2019ko ekainak 20).- Azpiegitura eolikoan mantentze-lanak (bereziki, *offshore* instalazioetan daudenenak) jarduera kritikoa dira, eta ezinbestekoak dira aerosorgailuek erabili bitartean izaten duten jokaera ezagutzeko, arazo edo matxura posibleak aurreikusteko eta, horrela, kostuak optimizatzeko eta gehieneko efizientzia lortzeko.

IK4-TEKNIKERek, ATTEN2 *spin off*-arekin batera, Los Monteros instalazio eolikoko aerosorgailu jakin batzuk monitorizatzen dituen irtenbide bat garatu du, hainbat araubidetako funtzionamenduari buruzko beharrezko informazioa biltzeko, biderkatzaileak erabili bitartean horien jokaera aurreikusteko eta hutsegiteen nahiz planifikatu gabeko etenaldien arriskua gutxitzeko. Irtenbide horrekin, **baldintzan oinarritutako** mantentze-lanen estrategia ezar daiteke Los Monteros instalazio eolikoko aerosorgailuetan.



Proiektua gauzatzeko eta ekipoen diagnostikoa egin ahal izateko, aerosorgailuek jarduteko dituzten askotariko araubideak hartu dira kontuan. Oinarrizko lana da hori, ekipoen funtzionamendua oso ezberdina izaten delako **eragiketa mota** bakoitzean, eta datuen analisia baldintzatzera eta zailtzera irits daitekeelako.

Hori dela-eta, eragiketarekin zerikusia daukaten **seinaleak biltzeko**, SCADA (*Supervisory Control And Data Acquisition*) sistemako datuak hautatu dira; hala nola, haizearen abiadura, sorgailuaren abiadura, potentzia aktiboa, pitch angelua (palen angelua, haizeari dagokionez), biderkatzaileko olioaren tenperatura eta eragiketaren egoera. Gainera, biderkatzaileetako olioaren degradazioa neurtzen duten sentsoreak jarri dira, degradazioa monitorizatzeko.

Monitorizazioa egokia izan dadin, **Fingerprint izeneko metodologia propioa** erabili du IK4-TEKNIKERek. Informazioa denbora errealean erabiltzea da kontua, aerosorgailua jarduten ari den egoera ezagutzeko eta modu kontrolatuan bildutako seinaleetatik ondorioak atera ditzaketenean uneak hautatzeko.

Metodologia horri esker, denboran alderatu daitekeen informazioa ateratzen da turbinen funtzionamendutik eta sentsoreek ematen dituzten datuetatik. Bada, biderkatzaileen egoera diagnostikatzea ahalbidetzen du informazio horrek, bai eta egon litezkeen arazoak aurreikustea ahalbidetzen ere, aerosorgailuen erabilgarritasun-mailan eragiten duten ustekabeko etenaldiak murrizteko.

Gainera, IK4-TEKNIKERena berarena den SAM plataforman (ingelesez, *Smart Asset Management*) integratzen da informazio hori guztia, informazioa prozesatu eta horren jarraipena egiteko, **ekipoen errendimendua optimizatzeari eta beren bizitza baliagarria luzatzeari begira**. SAM plataformak teknologia eta eskarmentua konbinatzen ditu, ekipo mekatronikoetan hutsegiteak eta matxurak hautemateko, diagnostikatzeko eta aurreikusteko, edota mantentze-lanen ingurunea maximizatzeko. Horrela, aktiboen erabilgarritasuna eta bizitza areagotzen dira, eta eragiketa-kostuak murrizten.

Los Monteros instalazio eolikoan, IK4-TEKNIKERek SAM plataforma erabiltzen du, SCADA sistematik eta sentsore-saretik datorren informazioa azter dezan. Halaber, datuak prozesatzeko algoritmoen bidez, adimena txertatzen du, eta, hala, kudeaketa-kapazitateez hornitzen da ATEN2, zerbitzatzeko eta alarmen jarraipena egiteko.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniarietan, produktu-ingeniarietan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////